

BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua, jolas-parke ekologikoa da. Honek txirristak, kulunkak, tirolinak, zalditxoak eta birakariak edukiko ditu (aukeratutako modeloaren arabera, elementu ezberdinak izango ditu parkeak eta ondorioz prezioak aldatuko dira).

Elementu hauek, haien barnean, motor bat edukiko dute. Gure produktua beraz energia eolikoan oinarrituko da. Tirolinen, zalditxoan, kulunken eta birakarien kasuan, gorputzaren mugimenduari lortuko da energia. Txirristen kasuan aldiz, ipurdiaren igurtziarekin. Energia hurrek jolastean lortuko da eta kulunken kasuan gainera (ez bakarrik lehendik azalduriko moduan), egun haizetsuek kausatzen duten higadura ere aprobeztatuko dugu.

Aipaturiko elementu bakoitzak prozesadore bat edukiko du eta honek bildutako energia parkearen behealdean (lurrazpian) kokaturik egongo den prozesadore generalera mugituko du, bertan kontzentratuko delarik energia guztia.

Energia hau jada aipaturiko lurrazpiko prozesadoretik ateratzen diren kable batzuen bidez herriko energia generadoreetara joango da eta horrela, bertako zati handi bat energiarekin beteko da. Toki hauek gehien bat eremu publikoak izango dira (kaleak, udaletxea, aparkalekuak, liburutegiak...)

Enpresa edo pertsona pribatu batek gure produktua kontratatu ezkerre, prozesadorea txikiagoa izango da eta kasu honetan pertsona honek edo pertsona multzo honek aukeratuko du nora bideratu energia hau.

Gure enpresak parkea eta prozesadorea bakarrik jarriko du, ondoren gainontzekoa argiketarien lana izango da.

Jolas-parke hauen onura herri guztiak nabarituko du, izan ere,

energia garbia izango da eta haurrek eguneroko ekintza komun bat egiten lortuko da energia. Jolasgune hauetan energia asko biltzen da baina hauek ez daudenean eta haizearen laguntzaz, energia lortuko da baita ere.

Gure produktua erraza da eskuratzeko eta hau hurrengo moduan lor daiteke: gure telefono zenbakietara deituz edo web orria bisitatuz, bertan baitdago informazio guztia. Zalantzak izan ezkerro gustu handiz argituko ditugu.

Azkenik, gure logoa aurkeztuko dizuegu.



BIYURRIENEA